


Balio Proposamena

Izaro Garcia eta Imanol Usandizaga gara, Produkzioaren Progamazioa Fabrikazio Mekanikoan Goi-mailako ikasleak eta Usagar S. Koop enpresa osatu dugu.

Lanean hasi ostean, konturatu gara tailer askotako lanabes zein kontsumagarriek diru asko suposatzen dutela enpresa batentzat egunerokotasunean. Eguneroko erabilera honek txukuntasun eta kontrol falta handia sortzen du enpresa gehienetan. Horregatik, sortu dugun **biltegi inteligente** honek, guzti honi irtenbidea ematen dio.



Gure produktuarekin tailer batean behar duzunarentzat biltegi bat edukitzea lortuko duzu, txukuntasun eta ordena mantentzeaz gain, inbentarioko arduetan asistentzia ematen duena. Kajoi zein armairu modularrak konbinatuz, bezeroari **soluzio integrala** eskeiniko diogu.

Biltegitratzea eskeintzeaz gain, programa informatiko baten laguntzaz erraminten sartu eta irteerak (erabiltzailea kontrolatuz), inbentario funtzioak, eguneroko erabileraren eta erreminta eta lanabesen inguruko informazioa eskainiko dugu.



Usagar S. Koop-ek eskeinitako produktua bezeroaren araberakoa izango da. Produktua estandarra edo pertsonalizatua izan daiteke. Produktua modularra izanik, hauekin jolastuko da bukaerako produktua osatzeko:

- Estandarra: Produktu orokorra, merkaturatze orokorrekoa. Modulo zehatz batzuez osatua.
- Pertsonalizatua: Enpresak berak zehaztutako beharrak asetuko dituen produktua. Kasuan kasu diseinatu eta ekoitzia. Produktu estandarra osatzen duten moduluen konbinazioa izango da.

Produktuak eskeintzen dituen **abantailak**:

- Txukuntasuna eta ordena
- Erraminta zein kontsumagarrien eguneroko kontsumoa/erabilera
- Gastuen kontrola
- Inbentarioaren egoera
- Estatistikak: Erreminta eta plakita erabilienak, puskatuenak...

Usagar S. Koop-ek, enpresa bezela ere ondoko zerbitzuak eskeiniko ditu:

- Garantia: Sentsoreen funtzionamendu eza zein akats informatiko eta mekanikoak kubrituko ditu.
- Asistentzia teknikoko zerbitzua

Guzti hau kontutan izanik, merkatu ikerketa bat egin dugu eta gure konpetizaileetako bat Zoller enpresa izango litzateke. Enpresa hau mekanizazioan dago espezializatua. Sektore honetan hiru ataletan banatzen da: lehenik erreminten gestioan, bigarrenik erreminten neurketan eta kalibrazioan eta azkenik erreminten berifikazioan. Gure kasuan lehen atal horretan lehiatuko genuke. Usagar-en zerbitzu pertsonalizatu bat ematen saiatuko gara kopententziarengandik desberdinduz.

Egunerokotasunean, Usagar-ek inguruarekiko eta gizartearekiko duen konpromezua handia da. Horregatik, ezarritako Garapen Iraunkorreko Helburuak oso garrantzitsuak zaizkigu lanerako orduan:



- Berrikuntzaren aldeko apostua



- Produzio zein kontsumo arduratsua
- Material ahalik eta jasagarrienak
- Material birziklatuen erabilera.